



ERRETERIA
UDALA
Hezkuntza / Educación

Espediente zk./Nº expediente: 2022SDBD0036	Erreg. data/Fecha reg:
Erreg. zk. / Nº registro: 000000	
Gaia/Asunto: 2023 DIRULAGUNTZAK: 3.1 IKASTETXEAK- HEZKUNTZA	
Eskatzailea/Solicitante: SDBD	NAN(IFK)/DNI(NIF): 90909090A
Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA	Dekretu zk./Nº Decreto: 1275

JAKINARAZPENA

Jakinarazten dizut, Hezkuntzako zinegotzi delegatuak, 2023ko maiatzaren 22an, ondorengo dekretua eman duela:

AURREKARIAK

2022ko azaroaren 25ean 2682zk.ko dekretu bidez, besteak beste, 2023 urteko Hezkuntza sailaren Programetarako Dirulaguntzak emateko Oinarri Orokorrak onartu ziren. Geroztik, 2022ko abenduaren 19an, 2856 zk.ko dekretuaren bidez Oinarri Orokorren akats zuzenketa egin zen.

Hezkuntza departamentuko zinegotzi delegatuak, 2023ko otsailaren 22an, dekretu zka. 440, hezkuntza arloko programetarako dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri espezifikoak eta deialdia onartzea erabaki du.

Hainbat ikastetxek urteroko jarduerak egiteko diru-laguntza eskatu dute.

Hezkuntza eta Gazteriako teknikariak 2023ko maiatzaren 5ean txostena eman du.

Balorazio Mahaiak 2023ko maiatzaren 9ean egin du proposamena.

Herritarrak Batzordea 2023ko maiatzaren 15ean jakinaren gainean jarri zen.

Kontuhartzaileak 2023ko maiatzaren 18an fiskalizazio txostena egindu.

ZUZENBIDE OINARRIAK

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.
- Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (GAO 2015/08/10).
- Errenteriako Udalak, 2022 urtean eta 2022-2023 ikasturtean, dirulaguntzak emateko Oinarri Orokorrak, 2022ko azaroaren 25ean Alkateak emandako dekretu bidez onartu ziren, eta gero 2022ko abenduaren 19an egin zen akats zuzenketaren bidez.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta idazkari



ERRETERIA
UDALA
Hezkuntza / Educación

orokorrak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

1.- **Dirulaguntzak ematea** jarraian aipatzen diren ikastetxeei, 2023 urtean egingo diren Hezkuntza departamentuko programetarako (3.1 Dirulaguntza Lerroa: Ikastetxeak):

IKASTETXEA	IFK	KOPURUA
BIZARAIN IKASTOLA-LH	S4833001C	4.004,45 €
KOLDO MITXELENA-LH	S4833001C	4.198,60 €
BIZARAIN-BH	S4833001C	3.664,68 €
EGILUZE-HIJAS CRUZ	R2000128E	3.373,44 €
CRISTOBAL GAMON-BH	S4833001C	900,00 €
KOLDO MITXELENA-BH	S4833001C	3.858,83 €
		20.000,00 €

2.- **12.000,00 €tako gastua Xedatzea** 1.0630.471.02.326.20 (7464)-2023 partidaren kargura (A-462-2023) (dirulaguntzaren %60a).

3.- **Konpromisoa hartzea** aurrekontu egokia eta nahikoa esleituko dela 2024 ekitaldietako aurrekontuetan, dirulaguntza lerro hau ematetik eratorritako obligazioei aurre egiteko, 8.000,00 €ko kopuruarengatik (geratzen den %40a).

4.- Hasieran elkarte bakoitzari emandako dirulaguntzaren %60a ordaintzea, aurrerakin gisa; betiere, aurkeztutako jarduera programa gauzatzen bada.

5.- Gainerako %40aren ordainketa, dokumentazio hau 2024ko urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztearen baldintzapean egongo da:

a) Dirulaguntza jasoko duen programa edo jardueraren memoria.

b) Diru-sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa.

c) Egindako gastuaren justifikanteak (fakturak) eta horien zerrenda.



**ERRETERIA
UDALA**
Hezkuntza / Educación

d) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

e) Elkartearen edo entitatearen diruzainak izenpetutako ziurtagiria, non jasotzen diren diruz lagundutako edo programatutako jarduerak finantzatzeko laguntza guztiak; bai entitate publikoek zein pribatuek egindakoak, zein publikoak orokorrean.

6.- Ordenantza arautzailean edo dirulaguntzaren emakidan adierazitako baldintzaren bat ez betetzeak, dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako diru kopurua jaistea edo kopuru osoa itzuli beharra ere bai.

Gainera, aplikagarria den araudian agertzen diren kasuetarako, bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzuli beharra, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik itzuli egin behar dela erabakitzen den data arteko berandutza interesak eskatzea ere.

7.- Udal Aurrekontuaren kargura dirulaguntza jasotzeko, beharrezkoa da erakunde edo pertsona fisiko onuradunek, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantza eguneratua izatea, legeak horrela eskatuko balu.

8.- Ebazpen hau elkarte interesatuei jakinaraztea eta Udal ontuhartzaitzari berri ematea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsio.

NON: dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegia.

EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsioa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Idazkari orokorra

Nagore Sarasola Otermin

IKASTETXEAK



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU2c5afe2e-2370-40b4-a405-71d4cb89b8b0**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022SDBD0036-JAKINARAZPENA II eu/NOTIFICACIÓN II eu (SDBD)